



EUSKADIKO HAUTESKUNDE
ADMINISTRAZIOA AUTONOMIA
ERKIDEGOKO HAUTESKUNDE BATZORDEA

ADMINISTRACIÓN ELECTORAL DE EUSKADI
JUNTA ELECTORAL DE LA COMUNIDAD
AUTÓNOMA

Osasun sailburuordea

EAEKO HAUTESKUNDE BATZORDEAK 2020(E)KO EKAINAREN 24(E)AN EGINDAKO BILERAN, ERABAKI HAUEK HARTU DITU, BESTEAK BESTE:

Idazkia

Kontsulta helarazten du osasun-jarraibideak gauzatzeko instrukzioak bidali daitezen eta eskualdeko hauteskunde-batzordeei azaldu dakien nola jardun behar duten covid-19aren aurrean arrisku-taldeetako pertsoneri buruz behin eta berriro heltzen diren alegazio guztien aurrean ([2020/314](#))

- **Egilea:** Bizkaiko Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordea

Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordeak uste du Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeei dagokiela Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legean ezarritako arauak interpretatzea, bai hauteskunde-mahaien eraketari buruz, bai bozketan gerta daitezkeen gorabeherei buruz.

Beste alde batetik, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeei dagokie, halaber, hauteskunde-mahaietako kideek gaixotasunetan oinarrituta aurkeztutako alegazioak interpretatzea, hauteskunde-legeetan eta Hauteskunde Batzorde Zentralaren apirilaren 28ko 6/2011 Instrukzioan (Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 27.3 artikulua interpretatzen du instrukzio horrek, hauteskunde-mahaietako presidente- eta bokalkarguetarako eragozpen eta desenkusa justifikatuei buruz) xedatutakoaren arabera. Izan ere, 44.1 artikuluan adierazten den bezala, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeei dagokie alegazioak ebaztea, errekurtsorik jarri gabe.

Era berean, Batzordeak erabaki du Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eskatzea argitara dezala Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Osasuneko sailburuordearen 2020ko ekainaren 1eko Ebazpena, Eusko Legebiltzarrerako 2020ko uztailaren 12ko

Viceconsejero de Salud

LA JUNTA ELECTORAL DE LA CAPV, EN SESIÓN CELEBRADA EL DÍA 24 DE JUNIO DE 2020, HA ADOPTADO, ENTRE OTROS, LOS SIGUIENTES ACUERDOS:

Escrito

Eleva consulta a fin de que se remitan instrucciones para llevar a cabo las pautas sanitarias y que indiquen a las juntas electorales de zona la forma de actuar ante todas las alegaciones que sucesivamente llegan en relación con las personas de riesgo ante la covid-19 ([2020/314](#))

- **Autor:** Junta Electoral del Territorio Histórico de Bizkaia

La Junta Electoral de la Comunidad Autónoma entiende que corresponde a las Juntas Electorales de Zona la interpretación de las normas establecidas en la Ley de Elecciones al Parlamento Vasco, tanto sobre la constitución de las mesas electorales como de aquellas circunstancias que puedan ocurrir durante la votación.

Por otra parte, corresponde igualmente a las Juntas Electorales de Zona interpretar aquellas alegaciones presentadas por los miembros de las mesas electorales basadas en enfermedades, a la luz de lo dispuesto tanto en las leyes electorales como en la instrucción 6/2011, de 28 de abril, de la Junta Electoral Central, de interpretación del artículo 27.3 de la Ley Orgánica del Régimen Electoral General, sobre impedimentos y excusas justificadas para los cargos de presidente y vocal de las mesas electorales. No en vano, tal como señala el artículo 44.1, corresponde a las Juntas Electorales de Zona resolver las alegaciones sin ulterior recurso.

Asimismo, la Junta acuerda instar al Departamento de Salud del Gobierno Vasco a que publique en el Boletín Oficial del País Vasco la resolución del viceconsejero de Salud de 1 de junio de 2020, sobre directrices sanitarias para las elecciones al



hauteskundeetarako osasun-jarraibideei buruzkoa, Hauteskunde Batzorde Zentralak egindako iradokizunekin batera.

Era berean, Hauteskunde Batzordeak erabaki du Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzak lurralde historikoetako hauteskunde-batzordeei igortzea aipatutako osasun-jarraibideak, eskualdeko hauteskunde-batzordeei bidaltzeko.

Azkenik, Hauteskunde Batzordeak Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzari eskatzen dio hauteslekuetan ikusteko eta eskuratzeko moduan, aipatutako osasun-jarraibideak izan ditzatela.

Parlamento Vasco de 12 de julio de 2020, junto con las sugerencias efectuadas por la Junta Electoral Central.

Igualmente, la Junta Electoral acuerda que la Dirección Régimen Jurídico, Servicios y Procesos Electorales remita a las Juntas Electorales de los Territorios Históricos, para su remisión a las Juntas Electorales de Zona, las mencionadas directrices sanitarias.

Por último, la Junta Electoral insta a la Dirección Régimen Jurídico, Servicios y Procesos Electorales a que en los colegios electorales, de forma visible y accesible, consten las citadas instrucciones sanitarias.

Vitoria-Gasteiz, 2020(e)ko ekainaren 24(e)an

Vitoria-Gasteiz, 24 de junio de 2020

IDAZKARIA / EL SECRETARIO

Andoni Iturbe Mach